Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra
**Bilera-zenbakia:** 2009ICGO0006
**Eguna:** 2009-06-30
**Ordua:**12:00-13-10
**Tokia:** Alkatetza

**Bertaratuak**

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea EA
- Eloy Bazan Bazan EA
- Jesús Mª Fontal García EAJ/PNV
- Mª Jesús Arruabarrena Izagirre EAJ/PNV

**Bertaratu ez direnak**

-

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2009ko maiatzaren 14ko aktaren onarpena** | **1.** | Aprobación del acta de 14 de mayo de 2.009 |
| **429/2009 Dekretuari eragozpenbidea** | **2.** | Reparo a Decreto 429/2009 |
| **AIU 9 "Ergobia Ibilbidea" errepartzelazio proiektua. Behin betiko onarpena** | **3.** | Proyecto de reparcelación de la AIU 9 "Ergobia Ibilbidea". Aprobación definitiva |
| **Informazio, galdera-erreguak** | **4.** | Información, ruegos y preguntas |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1. <u>2009ko maiatzaren 14ko aktaren onarpena</u>**

Akta, aho batez, onartzen da.

**1. <u>Aprobación del acta de 14 de mayo de 2.009</u>**

El Acta es aprobada por unanimidad.

**2. 429/2009 Dekretuari eragozpenbidea**

Alkate jaunak hartu du hitza, honako hau esanez: puntu hori aurreko Batzarrean mahai gainean geratu zela eta aholkularitza juridikoari txostena eskatzea erabaki zela; txosten hori Batzar honetan aurkeztu da, eta txosten horretan ondorioztatu zenez, juridikoki eskatutako lizentzia lortzeko, urbanizazio-proiektua behin betiko onartu behar da ezinbestean, eta horretaz gain, 9. HIEren Plan Bereziaren araudi osoa gutxienez Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.
Alkateak adierazi duenez, idazkari kontu-hartzailearen eragozpenbidearen edukia berresten du txosten horrek.

Eztabaidatu ondoren, Batzarreko kideek honako hau erabaki dute aho batez:
1.- Idazkari Kontu Hartzaileak 429/2009 Dekretuari buruz egindako eragozpenbidea berrestea, eta eskatutako obra-lizentzia ez ematea.
2.- Plan Nagusiaren Testu Bategina behin betiko onartu arte, 9. HIEren Plan Bereziaren araudi osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko ez igortzea.

**2. Reparo al Decreto 429/2009**

Interviene el Alcalde señalando que este punto quedó sobre la mesa en la Junta anterior en la que se acordó solicitar informe a la asesoría jurídica que se aporta a esta Junta y en la que se concluye que para la concesión de la licencia solicitada jurídicamente sería necesario que esté aprobado definitivamente el Proyecto de urbanización y por lo menos se publicase en el Boletín la normativa íntegra del Plan Especial de la A.I.U.9. Señala el Alcalde que el informe ratifica el contenido del reparo del Secretario-Interventor .

Tras un debate los miembros de la Junta, por unanimidad, acuerdan:
1º.- Ratificar el reparo del Secretario-Interventor al Decreto 429/2009, y no otorgar la licencia de obras solicitada.
2º.- En tanto no se apruebe definitivamente el Texto Refundido del Plan General no remitir, para su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, la normativa íntegra del Plan Especial de la A.I.U.9

**3. AIU 9 "Ergobia Ibilbidea" errepartzelazio proiektua. Behin betiko onarpena**

Lehena.- Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko "Ergobia Ibilbidea" 9. HIEren Errepartzelazio Proiektua behin betiko onartzea.

**3. Proyecto de reparcelación de la AIU 9 "Ergobia Ibilbidea". Aprobación definitiva**

Primero.- Aprobar definitivamente el Proyecto de Reparcelación de la A.I.U 9 "Ergobia Ibilbidea" de Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.

Bigarrena.- Luis Pey Gómez jaunak egindako alegazioa partzialki baiestea; horrela, Ibai Ondo Etxearen balioa 111.980 € gehiagokoa izango litzateke, hots, guztira 358.604 €.

Segundo.- Estimar parcialmente la alegación formulada por D. Luis Pey Gómez, incrementándose la valoración de la Casa Ibai Ondo en 111.980€, ascendiendo la misma a 358.604€.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara Departamentuari jakinaraztea Astigarragako Udalak Ibai Ondo Etxearen finkapena berriz aztertuko duela, toki horri soilik erabilera publikoa emanez.

Tercero.- Notificar al Departamento de Cultura y Euskera de Diputación Foral de Gipuzkoa que el Ayuntamiento de Astigarraga procederá a reestudiar la posible consolidación de la Casa Ibai Ondo, otorgándole un uso exclusivamente público.

Laugarrena.- Simón Goikoetxea Goñi jaunaren alegazioa ezestea, epez kanpo aurkeztu izanagatik.

Cuarto.- Desestimar la alegación de D. Simón Goikoetxea Goñi, por haberla presentado fuera de plazo.

Bosgarrena.- Astigarragako Udalean aurkeztutako dokumentuetan atzemandako kontraesan formalak ikusirik, Eloy Eizaguirre Alza jaunaren alegazioa ezestea, alegatzaileak ez baitu egiaztagirik aurkeztu.

Quinto.- A la vista de las contradicciones formales observadas en los documentos presentados en el Ayuntamiento de Astigarraga, desestimar la alegación de D. Eloy Eizaguirre Alza, por falta de acreditación del alegante.

Seigarrena.- Alegatzaileei, "Ergobia ibilbidea" 9.1 BUko Kontzertazio Batzordeari eta horien onurarako hipoteka-bermeak eratuta dituzten banku-entitate guztiei erabaki honen berri ematea.

Sexto.- Notificar el presente acuerdo a los alegantes, a la Junta de Concertación de la U.E. 9.1 "Ergobia ibilbidea", y a la totalidad de las entidades bancarias que tienen constituidas a su favor garantías hipotecarias.

Zazpigarrena.- Kontzertazio Batzordeari jakinaraztea Errepartzelazio Proiektuan EZ direla azalera-eskubideak eratu Babes Ofizialeko Etxebizitzak Eraikiko diren orubeen gainean; eskubide hori eskritura publikoan eratu beharko da, Errepartzelazio Proiektua behin betiko onartu ondoren.

Séptimo.- Apercibir a la Junta de concertación, que debido a que en el Proyecto de Reparcelación NO se han constituido los derechos de superficie, sobre los solares donde va a construirse las Viviendas de protección Oficial, dicho derecho deberá constituirse en escritura pública una vez aprobado definitivamente el Proyecto de Reparcelación.

## 4. Informazio, galdera-erreguak

Erabakia premiazkotzat aho batez jo ondoren, Batzordeko kideek honako hau erabaki dute:

## 4. Información, ruegos y preguntas

Previa declaración de urgencia aprobada por unanimidad, los miembros de la Junta acuerdan:

1.1 Batzordeko kideek aho batez onartu dute Astigarraga Lantzen SA enpresari 100.000 euroko transferentzia ordaintzea, 2009ko lehen seihilekoari dagokion kiroldegiaren kudeaketagatik, konturako ordainketa kontzeptuan.

1.2 Batzordeko kideek aho batez onartu dituzte Ergobiako urbanizazioaren lehen eta bigarren ziurtagiriak, 53.296,65 eurokoa eta 101.383,42 eurokoa, hurrenez hurren.

1.3 2009ko martxoaren 9ko Ogasun Batzordean eztabaidatutako 2008-2011 Legegintzaldiko Plana onartu da.

a. Los miembros de la Junta aprueban por unanimidad el pago a Astigarraga Lantzen S.A. de la transferencia de 100.000€ en concepto de entrega a cuenta por la gestión del polideportivo correspondiente al primer semestre de 2009.

b. Los miembros de la Junta aprueban por unanimidad, las certificaciones primera y segunda de la urbanización de Ergobia por importes de 53.296,65€ y 101.383,42€ respectivamente.

c. Se procede a la aprobación del Plan de Legislatura 2008-2011, analizado y debatido en la Comisión de Hacienda 9-03-2009.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2009ko ekainaren 30ean

Astigarragako Udala

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkari kontu-hartzailea**